

# BAI EUSKARARI!... ETA ELIZAK?

PAULO AGIRREBALTZATEGI

El euskara no es el idioma de una gente ignorante que no conoce la cultura moderna, sino la lengua nacional de un Pueblo: Euskadi.

De oportunismo hay que calificar el "BAI EUSKARARI" de partidos, organizaciones, Iglesia, etc.; si luego esta afirmación no se palpa en todos los aspectos concretos de la vida.

Como ejemplo baste decir que: el euskara se ha enseñado en los seminarios después de la guerra; pero de la misma forma, en los colegios de religiosos se ha tratado de ahogar y aniquilarlo. La Iglesia sólo ha apoyado al euskara cuando le ha servido para su práctica pastoralista, pero no porque fuera el "idioma de un Pueblo".

No hay sin más por qué creer en pomposas declaraciones en favor del Euskara. La opción de la Iglesia debe ser limpia y claramente en favor de un pueblo y una cultura que han estado y están oprimidos. Esta opción no se puede hacer sin decir un "sí" al euskara; y por último si nuestra Iglesia pretende ser una Iglesia Vasca debe oficializarse el euskara en todas sus actividades.

Euskal Herrian ari diren alderdi politikoek Euskarari baiezkora esan diote. Behingoz guztiak elkartu dira, Euskaltzaindiaren kanpainari eta arrazoinei baiezkora esateko. Eta baieztapen edo afirmazio handi bat egin dute: Euskara Euskal Herriaren hizkuntza dela. Herri osoarena. Baieztapen ximplea da benetan. Baina ez genuen uste hainbat alderdi politiko horretarako prest izango zenik.

Ez dira heldu esatera: Euskara da Euskal Herriaren hizkuntza. Gure hizkuntza nazionala! Bagenekien alderdi eta gizon politikari batzu ezin dutela horrelakorik esan. Baina gutxienez ere, Euskal Herri osoaren hizkuntza bezala aitortu dute euskara. Euskara ez da hor nonbaiteko jende lelo eta arakakoen hizkuntza; ez da baserriarren hizkuntza; ez da, kultura modernoa ezagutu ez duenaren hizkuntza. Euskara gaurko Euskal Herriaren hizkuntza da: Herri industrialdu baten hizkuntza; Herri guztien arteko dinamika politiko, kulturazko, tekniko eta ekonomiko horretan sartu nahi duen Euskal Herriaren hizkuntza da. Euskal langileen hizkuntza da; eta horregatik langileen internazionalismoa sendotzeko eta finkatzeko balio duen hizkuntza.

Herri baten eta herritar guztien hizkuntza da Euskara. Herritar guztiak elkar ulertzeko balioko du; baita herritarrak elkar nahasteko ere. Edozein hizkuntzak balio du herritarrak elkar ulertzeko, eta klase sozialen arteko burrukak nabarmentzeko: Espainolak, frantsesak eta... euskarak ere bai. Edozein hizkuntzak ditu hizkera ezberdinak: medikuarena eta artzainarena, abokatuarena eta etxekoandrea... oligarkarena eta langilearena. Euskarak ere bai; baina euskara bera, beste edozein hizkuntza bezala, Herriaren hizkuntza da: Euskal Herriarena! Hizkuntza herriarena da; hizkera, talde sozialarena, edo klase sozialarena.

Horregatik hizkuntza ez da Herri bateko klaseen arteko etenak eta burrukak estaltzeko; baina bai Herriaren batasun dialektikoa egiteko. Eta horretarako ere balio du euskarak Euskal Herriarentzat. Euskara ez da Euskal Herriaren -Euskadiren- "integratio" ustela egiteko, bertako klase burrukak estaliz edo; baina bai Herri dinamiko-eta kontradiktorio- baten dinamika eta kontradikzioak bideratzeko. Edo lehertzeko!

Euskal Herriko alderdi politiko guztiek "BAI EUSKARARI" esan dute. Herri desegin hau birregiten saiatuko ahal dira, euskara oinarri eta bide bezala jarri: Herriarentzat eta nork bere alderdiarentzat!

## ELIZAREN HIZKUNTZA

Teologiari handi batek -azken Kontzilioaren aurretik- latinen meritua kantatzen zituen, Elizaren unibertsaltasuna adierazteko. Teologilari hori progresistatzaletzat jotzen zuten gehienek. Karl Rahner zuen izena.

Nik ez dakit Karl Rahner-ek zer pentsatzen duen Kontzilio ondoren, latinari eta beste hizkuntzei buruz. Baina nekez sostengatuko da Kristoren Elizaren unibertsaltasuna latinen gainean. Alderantziz, uste dudanez, Elizaren unibertsaltasuna, Herri guztiak baieztatuz baieztatzen da; eta Herriak, beraien hizkuntza baieztatuz baieztatzen dira.

Alderdi politikoek egin duten arabera, Euskal Herriko Elizak -edo Diozesiek- ez dute agiririk eman Euskaltzaindiaren kanpaina bultzatzeko edo. Beharbada ez dio inork eskatu ere egin; baina seguru asko batekin bai nongo gehiagok espero zuen Elizaren aldetiko



hitz bat ere. Nik dakidenez, ez du hitzik atera. Beharbada beste nolabait lehendik ere atera duelako; esate baterako, Irakas-kuntzari buruz Hego Euskal Herriko apezpikuek eman zuten dokumentu handi hartan. Baina Euskal Herriko Elizaren aldetik ere merezi zuen "baiezko" bat -argia eta ozena- "Bai euskarari" biribila esan dion Herri honek. Ez zen izango oportunismoa...

Baina bai Elizarentzat, bai eta alderdi politikoentzat oportunismoa hutsa izan daiteke "Bai euskarari" esatea, gero instituzio bareneko bizitzan, programetan eta ekintzetan hori egiztatzen ez baldin bada.

Elizaren meritu onak eta meritu txarrak

aipatu eta astindu ohi dira, euskarari buruz izan duen jokabidea aztertzean. Beste edozein instituziok erabiltzen ez zuenean ere Elizak euskara erabili izan du homilietan, katekesian, etab. Egia da! Baina aldi berean, euskaraz ez zekiten -euskaldunak ez ziren- apezpikuek ezarri dituzte Elizak Euskal diozesietan, eta apaiz erdaldunak ere bai, ia euskara hutsa mintzatzen zen herritan. Gerra ondoren apaizgai seminarioetan irakatsi izan da gehienbat euskara. Egia da! Baina aldi berean, erlijiosoen kolegioak izan dira indarrak indartsuenetarikoa, euskara hiltzeko edo hilzorian jartzeko.

Orduan beti gelditzen da susmo hauxe: Elizak euskararen aldeko jokabidea izan baldin badu, jokabide praktikoa eta pastoralista hutsa izan da hori. Bere pastoraltzarako praktikoa zuelako jokatu du Elizak euskararen alde, eta ez "Herri baten hizkuntza delako". Horregatik, Euskal Herriaren hizkuntza delako. "BAI EUSKARARI" argi eta garbi esan behar zuela uste dut.

## HITZAK ETA EKINTZAK

Baina ez dago, besterik gabe, alderdi politikoen deklarazio handiei sinesterik. Ez eta Elizaren hitz hutsarekin lasai gelditzetik.

Euskal Herriko Elizak beste erataria eman behar dio baiezkora Euskarari:

1.-Euskal Herriko Elizak ere ordaina zor dio Herriari, honen hizkuntza aintzakotzat hartu ez duelako, baztertu egin duelako, heriotzara eraman duelako. Euskal kultura eta hizkuntza debekatuak eta zapalduak egon dira eta daude praktikan oraindik ere. Pobrean eta zapalduen alde jokatu behar duen Elizak, aukera argi eta garbi bat egin beharra dauka, Euskal Herriaren hizkuntza eta kultur egoeraren aurrean.

2.- Euskal Herria, bere hizkuntza ukatu zaiolarik, eta erdara ezarri, zatikaturik eta desintegraturik dago. Herriaren batasunaren alde jokatu nahi baldin badu, eta bate-ratzaile izan nahi baldin badu, ulertu beharra dauka Elizak, Euskal Herriaren batasuna ezin daitekeela egin, bere hizkuntza den euskarari benetan eta ekintzetan "BAI" esan gabe.

3. Bide horretatik, gaurregun eta biarko, Euskal Herriko Elizak Euskal Eliza eraiki nahi baldin badu, bere barnerako eta ondorio guztietarako euskara ofizialdu beharra dauka, gehiago luzatu gabe.

Aukera berri eta tinko bat egin beharra dauka Euskal Elizak, "BAI EUSKARARI" esanez.